

Euskal Autonomia Erkidegoan ondasunen esportazioek % 4,1 egin zuten behera 2024ko ekainean

2024ko lehen sei hilabeteetako metatuan esportazioak % 7,4 jaitsi dira, baina merkataritza-saldo positiboari eutsi zaio, 2.000 milioi eurotik gorakoa

EUSTATen datuen arabera, 2024ko ekainean, Euskal Autonomia Erkidegoko **ondasunen esportazioek** % 4,1 egin zuten behera urte arteko datuei erreparatuta. 2.770 milioi euroko esportazioak izan ziren, aurreko urteko hil berean 2.889 milioi euro izan zirenean. Ondasun **energetikoen** % 116,6 egin zuten gora eta **ez-energetikoen** % 7,5 egin zuten behera.

Arabako esportazioek % 15,1 egin zuten behera eta Gipuzkoakoek % 6,9; aitzitik, Bizkaian esportazioek % 8,8 egin zuten gora.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Ekaina 2024

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Ekaina			Ekaina		
	2023	2024	Gehikuntza (%)	2023	2024	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	2.888.554	2.770.026	-4,1	2.368.091	2.266.519	-4,3
ENERGIAZKO GAIAK	78.741	170.540	116,6	529.670	511.047	-3,5
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.809.813	2.599.487	-7,5	1.838.421	1.755.472	-4,5
URTEKO METATUA	17.091.159	15.826.331	-7,4	14.205.783	13.819.834	-2,7
ENERGIAZKO GAIAK	789.510	1.112.273	40,9	3.419.061	3.834.231	12,1
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	16.301.649	14.714.058	-9,7	10.786.723	9.985.603	-7,4
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	951.908	807.701	-15,1	597.850	592.423	-0,9
URTEKO METATUA	5.518.581	4.574.294	-17,1	3.238.371	2.981.382	-7,9
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.015.756	1.104.694	8,8	1.291.290	1.193.467	-7,6
URTEKO METATUA	6.352.429	6.217.372	-2,1	8.198.499	8.133.950	-0,8
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	920.890	857.631	-6,9	478.951	480.629	0,4
URTEKO METATUA	5.220.149	5.034.664	-3,6	2.768.913	2.704.502	-2,3

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2024ko Abuztuaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal Autonomia Erkidegoko **ondasunen inportazioek** % 4,3ko beherakada izan zuten, eta 2.266 milioi eurokoak izan ziren. Inportazio *energetikoe*k % 3,5 egin zuten bera eta *ez-energetikoe*k % 4,5. Merkataritza-saldoa positiboa da (+503,5 milioi) eta estaldura-tasa % 122,2koa da.

Arabako inportazioek % 0,9 egin zuten behera eta Bizkaikoek % 7,6; Gipuzkoek, aitzitik, % 0,4 egin zuten gora.

Produktuen arabera (muga-zergen partidak)

Xehetasunetan arreta jarritz, hilabete honetan hauek dira muga-zergen bost esportazio-partida nagusiak: “10 pertsona baino gutxiagoko automobilak” (269,6 milioi, baina 2023ko hilabete berean baino 39,2 milioi gutxiago, eta % 12,7ko murrizketa); “ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak” (195,7 milioi; 29,8 milioi gutxiago eta % 13,2ko murrizketa); “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak” (118,6 milioi; 83,5 milioi gutxiago eta % 41,3ko murrizketa); “Petrolio-olio finduak” (80,1 milioi esportatu dira, aurreko urtean baino 10,1 milioi gehiago, hau da, % 14,4ko gehikuntza); eta “Petrolio edo mineral bituminosoko olio gordinak” (79,0 milioi merkaturatuak; 75,9 milioi gehiago). Partida horiek, ekainean, esportatutakoaren guztizkoaren % 26,8 izan ziren, guztira 742,8 milioi euroko balioarekin.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Ekaina 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.888.554	2.770.026	100,0	-4,1
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	308.725	269.570	9,7	-12,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	225.419	195.653	7,1	-13,2
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	202.113	118.570	4,3	-41,3
Petrolioaren olio finduak	69.990	80.077	2,9	14,4
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	3.079	78.962	2,9	2.464,7
Kautxuzko pneumatiko berriak	124.354	78.453	2,8	-36,9
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	41.822	66.099	2,4	58,1
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	78.864	47.612	1,7	-39,6
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	46.585	45.174	1,6	-3,0
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	72.856	45.145	1,6	-38,0
Turboreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	27.268	38.110	1,4	39,8
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsauearako	41.615	38.054	1,4	-8,6
Burdina edo altzairuzko gainerako enufakturak	41.316	37.725	1,4	-8,7
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	31.214	37.183	1,3	19,1
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	24.424	32.303	1,2	32,3
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	28.135	30.792	1,1	9,4
Metala lantzeko mekanizazio-zentroak	8.470	27.958	1,0	230,1
Xaffen bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicioen-etako, burdinazko edo altzairuzko antzeko	25.166	27.858	1,0	10,7
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	35.456	27.778	1,0	-21,7
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	31.073	27.476	1,0	-11,6
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	16.108	27.391	1,0	70,0
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	20.501	27.273	1,0	33,0
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	23.278	25.185	0,9	8,2
Aluminiozko enakturak: burdin sareak, puntak, torlojuak, azkoinak, errematxeak, larakoak eta antzeko gaiak	9.206	25.169	0,9	173,4
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	186	24.266	0,9	12.966,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Abuztuaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Arabian, muga-zergen bi partida nagusiek, “10 pertsona baino gutxiagoko automobilak” (-% 15,2) eta “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak” (-% 41,4), beherakada nabarmenak izan dituzte aurreko urtearekin alderatuta, 41 milioi lehenengoak eta 83,5 milioi bigarrenak. “Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak” partida ere jaitsi egin da (-% 32,7 eta 20 milioi gutxiago). Hau da gehien hazi den partida (% 213,9): “Aluminiozko manufakturak: burdin-sareak, puntak, torlojuak, azkoinak, errematxeak, larakoak eta antzeko gaiak”.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Ekaina 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	951.908	807.701	100,0	-15,1
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	269.602	228.622	28,3	-15,2
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	201.739	118.275	14,6	-41,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	47.593	53.236	6,6	11,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	52.794	50.762	6,3	-3,8
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	61.171	41.188	5,1	-32,7
Aluminiozko manufakturak: burdin sareak, puntak, torlojuak, azkoinak, errematxeak, larakoak eta antzeko gaiak	7.546	23.687	2,9	213,9
Ardoa, mahats freskoarena	16.482	14.768	1,8	-10,4
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	10.922	14.083	1,7	28,9
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	14.984	12.423	1,5	-17,1
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	6.115	9.073	1,1	48,4

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Abuztuaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaian, nabarmentzen da “Petrolio edo mineral bituminosoko olio gordinak” partidaren igoera, aurreko urteko aldi berean baino 75,9 milioi gehiago, eta “Metala lantzeko mekanizazio-zentroak”, 24,4 milioi euroko esportazioarekin. Partida nagusien artean, “Kautxuzko pneumatiko berriak” partidako esportazioek soilik egin dute nabarmen atzera (% 67,6 eta % 51,4 milioi gutxiago).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Ekaina 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.015.756	1.104.694	100,0	8,8
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	3.079	78.962	7,1	2.464,7
Petrolioaren olio finduak	65.567	77.996	7,1	19,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	83.159	69.811	6,3	-16,1
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	39.247	64.433	5,8	64,2
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	37.384	39.943	3,6	6,8
Turboreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	27.225	37.940	3,4	39,4
Transformadore elektrikoak, bihurkailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	20.964	26.836	2,4	28,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	75.985	24.597	2,2	-67,6
Metala lantzeko mekanizazio-zentroak	60	24.371	2,2	40.518,5
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	21.245	22.956	2,1	8,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Abuztuaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gipuzkoan, adierazgarriak dira partida hauetan izan diren igoerak: “*Bidaia-erien, ekipaje, posta eta abarren bagoiak trenbideetarako eta antzekoetarako*” eta “*Beste kapitulu batean sartzen ez diren beste makina eta aparatu mekaniko batzuk*” 24,1 eta 19 milioi esportaturekin, hurrenez hurren. Haatik, atzera egin dute “*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*” partidak (-% 16,1 eta 14,4 milioi euro gutxiago) eta “*Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak*” partidak (-% 39,4 eta 29,3 milioi euro gutxiago).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Ekaina 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	920.890	857.631	100,0	-6,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	89.466	75.079	8,8	-16,1
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	74.284	44.996	5,2	-39,4
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	41.615	38.054	4,4	-8,6
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	27.873	33.940	4,0	21,8
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	32.222	29.987	3,5	-6,9
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaia-ariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	0	24.086	2,8	-
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	19.386	21.276	2,5	9,7
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	22.221	20.075	2,3	-9,7
84. kapituluaren sartzen ez diren beste makina eta aparatu mekaniko batzuk	5.865	18.971	2,2	223,5
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	19.529	18.849	2,2	-3,5

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Abuztuaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioak aztertuta, ikusten da partidarik garrantzitsuenak, “*Petrolio edo mineral bituminosoko olio gordinak*” partidak (guztizkoaren % 15,6), % 9,7 egin duela behera, 354,1 milioi euroko inportazioekin. Hurrengo partidarik garrantzitsuenak, “*Petrolio-olio finduak*”, igoera nabarmena izan du (% 42,7ko igoera eta 127,8 milioi inportatu), baita “*10 pertsona baino gutxiagoko automobilak*” partidak ere (57,3 milioi, ia guztiak Arabatik).

Jatorri/helmuga herrialdeak, 2024ko ekaina

Hilabete honetan, esportatzaileen sailkapenaren lehen postuetan honako hauek daude:

- **Frantzia:** 457,2 milioi euroko balioa duten ondasunak esportatu dira, % 252,3ko estaldura-tasarekin.
- **Alemania:** gure Erkidegotik 418,5 milioi euroko balioa duten produktuak jaso ditu, % 114,2ko estaldura-tasarekin.
- **Erresuma Batua:** 207,5 milioi euroko balioa duten esportazioak egin dira, % 434,0ko estaldura-tasarekin.
- **Italia:** herrialde horretara 174,9 milioi euroko esportazioak bideratu dira, eta % 154,3ko estaldura-tasa lortu da.
- **Ameriketako Estatu Batuak:** herrialde horretara zuzendutako salmentak 166,4 milioi eurokoak izan dira, % 198,9ko estaldura-tasarekin.

Herrialde horiek esportazioaren guztizkoaren % 51,4 hartzen dute; horietako lau EB27koak dira, eta erakunde horrek biltzen ditu esportazioen % 61,9.

Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen kanpo-merkataritzak 2.006 milioi euroko saldo positiboa izan du 2024ko urtarritetik ekainera bitarteko metatuan

Lehenengo sei hilabeteetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioetarako, % 7,4ko jaitsiera erregistratu da aurreko urteko aldi beraren aldean, hau da, 1.264,8 milioi euro gutxiago izan dira. Esportazioen zenbatekoa, berriz, 15.826,3 milioikoa izan da aldi horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Bizkaiko esportazioak dira handienak 6.217,4 milioirekin, eta gero datoz Gipuzkoakoak 5.034,7 milioirekin eta Arabakoak 4.574,3 milioirekin.

Produktu mota kontuan hartuta, "Produktu ez-energetikoak" dira ugarienak 14.714,1 milioi euroekin.

Xehetasunei erreparatuz, ikusten da muga-zergen partida nagusiak (1.241 milioi), "10 pertsona baino gutxiagoko automobilak", % 23,9ko beherakada izan duela, aurreneko lehen hamar muga-zergen artean nagusi den joeraren bidetik; atzerakada horiek "Soldadurarik gabeko hodi eta profil hutsak, burdinazkoak edo altzairuzkoak" izan duen -% 40,0ren eta "Burdinazko edo altzairuzko gainerako manufakturak" izan duen -% 3,5en artekoak izan dira.

Aipatutako multzoaren barruan, "Petrolio-olio finduak" atalean izan da esportazioen hazkunderik handiena (% 28,8; guztira 880 milioi esportatu dira, aurreko urteko aldi berean baino 197 milioi gehiago). Beherakadarik handienak aurrez aipatutako partida hauetan izan dira: "Soldadurarik gabeko hodi eta profil hutsak, burdinazkoak edo altzairuzkoak", "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (-% 32,3 eta 378,3 milioi gutxiago) eta "Kautxuzko pneumatiko berriak" (-% 24,8 eta 189,7 milioi gutxiago).

Euskal AEko esportazioen rankinga herrialdeka, urteko metatua (p). Ekaina 2024

	Herrialdea	Mila euro	Estandura-tasa
	ESPORTAZIOAK GUZTIRA	15.826.331	114,5
1	Frantzia	2.607.112	235,6
2	Alemania	2.293.751	115,9
3	Erresuma Batua	1.160.930	338,8
4	Estatu Batuak	1.031.895	122,9
5	Italia	1.001.198	145,8
6	Belgika	733.705	248,4
7	Portugal	710.221	161,1
8	Herbehereak	644.959	125,2
9	Polonia	400.686	169,4
10	Mexiko	390.962	77,3
11	Txinako Herri Errepublikak	383.010	42,8
12	Turkia	240.059	201,5
13	Txekiar Errepublika	227.631	230,7
14	Norvegia	220.013	119,1
15	Suitza	217.974	265,1
16	Kanada	214.180	205,8
17	Suedia	196.572	100,3
18	Austria	170.093	133,2
19	Maroko	165.156	303,6
20	Brasil	136.189	16,9
21	Errumania	117.813	132,9
22	Danimarka	116.924	255,5
23	Hungaria	115.323	154,0
24	Eslovakia	112.010	127,0
25	Australia	111.099	1.607,6

(p)Behinbehineko datuak

Estandura-tasa = herrialde baten esportazioen eta inportazioen artean dagoen erlazioa neurtzen du

Data 2024ko Abuztuaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika


2024ko lehen sei hilabete hauetako sailkapenaren arabera, Frantzia da herri hartzaile nagusia, esportatutako guztiaren % 16,5 hartzen baitu. Frantziaren ondoren datoz Alemania (% 14,5) eta Erresuma Batua (% 7,3). Hiru herrialde horien artean euskal esportazioen ia % 40 hartzen dute (% 38,3).

Euskal Autonomia Erkidegoan ondasunen inportazioen metaketa 13.819,8 milioi euro ingurukoa da. Zifra horren urte arteko alderaketa eginez gero, ikusten da aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino 385,9 milioi gutxiago dela. Jaitsiera hori, hein handi batean, Arabako lurraldean aldi horretan izan den % 7,9ko beherapenaren ondoriozkoa da —2.981 milioi inportazio metatuekin, hau da, 2023ko aldi berean baino 257 milioi gutxiago—. Atzera egin dute Gipuzkoako inportazioek ere, 64,4 milioi gutxiago (-% 2,3), guztira 2.704 milioirekin, eta Bizkaikoek (64,5 milioi gutxiago, -% 0,8), guztira 8.134 milioirekin. “Produktu ez-energetikoen” inportazioak % 7,4 egin du behera, baina “produktu energetikoenak” % 12,1 egin du gora.

Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen kanpo-merkataritzak 2.006,5 milioi euroko saldo positiboa izan du 2024ko urtariletik ekainera bitartean, eta % 114,5eko estaldura-tasa izan du.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea

Donostia kalea, 1. 01010 Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62